



ESTADISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



**ERAIKUNTZARI ETA
ETXEBIZITZARI BURUZKO
ESTADISTIKA (EEEE)**

Emaitza nagusiak

2020ko 4. hiruhilekoa

*Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra handiko lizentzien kopurua hazi egin da Euskal Autonomia Erkidegoan 2020ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta eta urtetik urterako terminoetan.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) arabera, 2020ko laugarren hiruhilekoan obra handiko 802 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaitza horiek 2020ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino handiagoak dira. Izan ere, 131 lizentzia gehiago eman dira, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 19,5eko igoera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak gorakada izan du, baina ez horren nabarmena: 36 lizentzia gehiago onartu dira, eta beraz, % 4,7ko gorakada izan da.

Obra handiko lizentzien erdiak baino gehiago Bizkaian eman dira (% 55), 441 guztira. Ondoren, Araban 203 lizentzia eman dira, hau da, baimen guztien % 25,3. Gainerako 158 lizentziak, guztien % 19,7, Gipuzkoan eman dira.

2020ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean, Bizkaian eta Araban gora egin du obra handiko lizentzien kopuruak. Gipuzkoan, berriz, % 3,7 egin du behera (6 lizentzia gutxiago). Bizkaian 119 lizentzia gehiago eman dira (% 37ko gorakada). Araban igoera txikiagoa izan da: 18 lizentzia gehiago (% 9,7ko gorakada termino erlatiboetan).

Urtetik urterako emaitzei dagokienez, emaitzak negatiboak izan dira Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetan. Bestalde, Bizkaian igo egin da emakida-kopurua. Araban, 5 lizentziako beherakada absolutua gertatu da 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 2,4ko beherakada erlatiboa. Gipuzkoan, urtetik urterako beherakada 12 lizentziakoa izan da, eta epealdiko beherakada erlatiboa, berriz, % 7,1ekoa. Bizkaian, aldiz, 53 lizentziako gorakada gertatu da kopuru absolutuetan; hortaz, % 13,7ko gorakada izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Ohikoa denez, 2020ko laugarren hiruhilekoan emandako lizentzia gehienak birgaitzeko obrekin lotuta daude (% 86,3).

2020ko laugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** arabera banaketan, aurreko hiruhilekoetako joera berari eutsi zaio. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehatz-mehatz, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 86,3 izan dira; lizentzien % 11,3 eraikin berrietarako izan dira, eta % 2,4, berriz, eraispentarako lizentziak. Kopuru absolutuak honako hauek dira: 692 birgaitze-lizentzia (2020ko hirugarren hiruhilekoan baino 127 gehiago, % 22,5eko gorakadarekin), eraikuntza berriko 91 lizentzia (aurreko hiruhileko lizentzia-kopuru berbera), eta 19 eraispent-lizentzia, hirugarren hiruhilekoan baino 4 gehiago (% 26,7).



Eraikuntza berriko etxebizitzetarako lizentziak eta birgaitzeko eraikinetarakoak modu desberdinean banatzen dira emandako lizentzien kopuru osoan, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Araban eta Bizkaian, eraikuntza berriko lizentziek Gipuzkoan baino pisu erlatibo txikiagoa dute: emandako obra handiko lizentzia guztien % 10,8 eta % 10,7, hurrenez hurren; Gipuzkoan, berriz, % 13,9 dira. Birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez: Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako baimen guztien % 88 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 86,2 da, eta Gipuzkoan, % 81,6.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2020ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	802	100,0	131	19,5	36	4,7
	Eraikuntza berria	91	11,3	0	0,0	-4	-4,2
	Birgaitzea	692	86,3	127	22,5	38	5,8
	Eraispena	19	2,4	4	26,7	2	11,8
Araba	Guztira	203	100,0	18	9,7	-5	-2,4
	Eraikuntza berria	22	10,8	-11	-33,3	-12	-35,3
	Birgaitzea	175	86,2	33	23,2	5	2,9
	Eraispena	6	3,0	-4	-40,0	2	50,0
Bizkaia	Guztira	441	100,0	119	37,0	53	13,7
	Eraikuntza berria	47	10,7	12	34,3	12	34,3
	Birgaitzea	388	88,0	105	37,1	41	11,8
	Eraispena	6	1,4	2	50,0	0	0,0
Gipuzkoa	Guztira	158	100,0	-6	-3,7	-12	-7,1
	Eraikuntza berria	22	13,9	-1	-4,3	-4	-15,4
	Birgaitzea	129	81,6	-11	-7,9	-8	-5,8
	Eraispena	7	4,4	6	600,0	0	0,0

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa



2020ko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera arteko aldian, eraikin berrietarako lizentziek nabarmen egin dute behera Araban (-% 33,3, hau da, 11 lizentzia gutxiago). Bizkaian, % 34,3 egin dute gora (12 lizentzia gehiago), eta Gipuzkoan, berriz, behera egin dute, % 4,3 (aurreko hiruhilekoan baino lizentzia 1 gutxiago). Birgaitzeko obrei dagokienez, Gipuzkoan bakarrik egin du behera lizentzien kopuruak (-% 7,9); Araban nabarmen egin du gora (% 23,2), eta Bizkaian izan da gorakadarik handiena: % 37,1.

Urtetik urterako bilakaerari erreparatuta, obra berriko lizentziek % 4,2ko jaitsiera izan dute EAE osoan, 2019ko laugarren hiruhilekoan baino 4 lizentzia gutxiago eman baitira. Bizkaia izan da igoera erlatiboa izan duen lurralde bakarra, 12 lizentzia gehiago izan ondoren (% 34,3 gehiago). Gipuzkoan, urtetik urterako jaitsiera apalagoa izan da: 4 lizentzia gutxiago (-% 15,4). Araban nabarmenagoa izan da beherakada: -% 35,3 termino erlatiboetan, hau da, 12 lizentzia gutxiago termino absolutuetan.

Bestalde, 2019ko laugarren hiruhilekotik 2020ko laugarren hiruhilekora bitartean, birgaitzeko lizentzien kopuruak gora egin du EAEn (% 5,8). Gorakada hori Bizkaian eta Araban gertatu da, baina batez ere Bizkaian (% 11,8, hau da, 41 lizentzia gehiago), Araban % 2,9koa izan baita (5 lizentzia gehiago). Gipuzkoan, % 5,8ko beherakada izan da (8 lizentzia gutxiago).

Urtetik urterako aldakuntza metatuei dagokienez, 2020ko laugarren hiruhilekoan ere lizentziek beherakada izan dute orokorrean, batez ere birgaitzeko lizentzien kopuruan izandako jaitsiera nabarmenaren ondorioz.

Urteko datu metatu horiek 2020ko lehen hiruhilekoaren eta 2020ko laugarrenaren artean emandako lizentzia guztiak hartzen dituzte kontuan, eta aurreko urteko hiruhileko horietako urteko datu metatuekin alderatzen dira (2019ko lehen hiruhilekotik 2019ko laugarrenera emandako lizentzien kopuruekin). Kopuru absolutuetan, 419 lizentzia gutxiago izan dira (% 12,7 gutxiago) aurreko aldiarekin alderatuta. Jaitsierarik nabarmenenak birgaitzeko lizentzietan gertatu dira (% 12,7ko beherakada: 355 lizentzia gutxiago), baita eraikin berrietarako lizentzietan ere (azken horietan ere % 13,5koa, baina 59 lizentzia gutxiago izan direlako). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien beherakada txikiagoa izan da balio absolutuetan (5 lizentzia gutxiago), baina termino erlatiboetan antzeko jaitsiera izan dute: -% 7,4.

2020ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera negatiboa da hiru lurraldeetan; termino erlatiboetan, hiruen artean ez dago alde handirik.

Urtetik urterako datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, datuek behera egin dute hiru lurraldeetan:



Araban, azken urtean metatutako lizentzien kopurua % 14,9 txikiagoa izan da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (123 lizentzia gutxiago). Eraikin berrietarako lizentziek behera egin dute (-% 15,0, hau da, 20 lizentzia gutxiago); birgaitzeko lizentziek jaitsiera handiagoa izan dute (-% 15,6, hau da, 105 lizentzia gutxiago), eta eraispenetarako lizentziak 2 gehiago izan dira (% 9,5).

2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2020ko 1. hiruhilekotik 2020ko 4. hiruhilekora		Metatua 2019ko 1. hiruhilekotik 2019ko 4. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	2.885	100,0	3.304	100,0	-419	-12,7
	Eraikuntza berria	377	13,1	436	13,2	-59	-13,5
	Birgaitzea	2.445	84,7	2.800	84,7	-355	-12,7
	Eraispena	63	2,2	68	2,1	-5	-7,4
Araba	Guztira	704	100,0	827	100,0	-123	-14,9
	Eraikuntza berria	113	16,1	133	16,1	-20	-15,0
	Birgaitzea	568	80,7	673	81,4	-105	-15,6
	Eraispena	23	3,3	21	2,5	2	9,5
Bizkaia	Guztira	1.528	100,0	1.744	100,0	-216	-12,4
	Eraikuntza berria	161	10,5	178	10,2	-17	-9,6
	Birgaitzea	1.348	88,2	1.541	88,4	-193	-12,5
	Eraispena	19	1,2	25	1,4	-6	-24,0
Gipuzkoa	Guztira	653	100,0	733	100,0	-80	-10,9
	Eraikuntza berria	103	15,8	125	17,1	-22	-17,6
	Birgaitzea	529	81,0	586	79,9	-57	-9,7
	Eraispena	21	3,2	22	3,0	-1	-4,5

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa



Gipuzkoan, 80 lizentzia gutxiago izan direnez, % 10,9 egin du behera orotara obra-lizentzien urtetik urterako kopuru metatuak. Balio erlatiboetan, eraikuntza berriko lizentzietan gertatu da gainbeherarik handiena (-% 17,6koa: 22 lizentzia gutxiago). Birgaitzeko lizentziek % 9,7 egin dute behera (57 lizentzia gutxiago, balio absolutuetan); eraispen-lizentziek ere behera egin dute (% 4,5eko beherakada, hau da, lizentzia bat gutxiago).

Termino erlatiboetan, Bizkaia tarteko egoeran egongo litzateke hiru lurraldeetan izan den beherakada horretan (-% 12,4, hau da, 216 lizentzia gutxiago). Obra-motaren arabera, eraikin berrietarako lizentzien kopuruak % 9,6 egin du behera urtetik urtera (17 lizentzia gutxiago), birgaitzeko lizentziak ere gutxiago izan dira (% 12,5eko jaitsiera, 193 lizentzia gutxiago), eta eraispen-lizentziak, aldiz, 6 gutxiago (-% 24).

3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2020ko laugarren hiruhilekoan, bizitegi-erabilerako obra handiko lizentzien kopurua berreskuratu da, aztertutako bi aldiei begira; bestalde, bizitegirako ez diren obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du urtetik urtera.

2020ko laugarren hiruhilekoan, obra handiko 783 lizentzia eman dira, eraikin berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (629, guztien % 80,3) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zaizkie, eta gainerako 154ak, guztien % 19,7, bizitegirako ez diren erabileretarako proiektuei¹.

2020ko laugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikus daiteke zerbitzuen sektoreko erabilerakoak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 63,6), ohikoa denez. Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 26,0 bideratu da, eta % 10,4, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

2020ko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera lizentziek izan duten **hiruhilekoko bilakaerari** erreparatuta, % 19,4 egin du gora emandako lizentzien kopuruak (127 gehiago). Kontuan hartu diren bi erabilerei eragiten die gorakadak: bizitegi-erabilerekin lotutako lizentziek % 21,4 egin dute gora (111 lizentzia gehiago, termino absolutuetan), eta bizitegirako ez diren erabilerei dagozkienek, % 11,6 (16 lizentzia gehiago).

2020ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzietan izan den emaitza lotuta dago zerbitzuen sektorean izandako lizentzia-kopuruaren igoerarekin, 12 gehiago izan baitira (% 42,9); horrek bigarren sektorean izandako % 4,3ko igoera txikia gainditu du (4 lizentzia), eta lehen sektorean, berriz, lizentzia-kopurua bere horretan mantendu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

2019ko laugarren hiruhilekoaren eta 2020koaren arteko **urteko** alderaketa positiboa da bizitegi-erabilerarako lizentzietan (% 9,6, hau da, 55 lizentzia gehiago), baina negatiboa bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzietan: 21 lizentzia gutxiago (-% 12,0).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik kanpo geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat izapidetu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak).



3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2020ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
Guztira	783	100,0	127	19,4	34	4,5
Bizitegia	629	80,3	111	21,4	55	9,6
Bizitegiak bestelakoa	154	19,7	16	11,6	-21	-12,0
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	16	10,4	0	0,0	9	128,6
• Industria eta energia	40	26,0	12	42,9	-12	-23,1
• Zerbitzuak	98	63,6	4	4,3	-18	-15,5

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

2019ko eta 2020ko laugarren hiruhilekoen artean, bizitegirako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, beherakada izan da industriaren eta energiaren sektorean (-% 23,1, hau da, 12 lizentzia gutxiago), baita zerbitzuen sektorean ere (-% 15,5, hau da, 18 gutxiago); bestalde, lehen sektorean gorakada nabarmena izan da termino erlatiboetan: % 128,6 (9 lizentzia gehiago).

Urtetik urterako kopuru metatuetan, EAEn berriz ere behera egin dute emandako lizentziek, bi erabileren motetan, bizitegikoan eta bizitegikoa ez den erabileran.

2020ko lehen hiruhilekotik 2020ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urtetik urterako kopuruak alderatzen baditugu aurreko urteetako hiruhileko horietan izandako kopuruekin, datuek beherakada islatzen dute bizitegi-erabilerako lizentzietan (-% 11,6) eta bizitegikoa ez den erabilerakoetan (-% 17,2).



4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2020ko 1. hiruhilekotik 2020ko 4. hiruhilekora		Metatua 2019ko 1. hiruhilekotik 2019ko 4. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Guztira	2.822	100,0	3.236	100,0	-414	-12,8
Bizitegia	2.238	79,3	2.531	78,2	-293	-11,6
Bizitegiak bestelakoa	584	20,7	705	21,8	-121	-17,2
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	53	9,1	73	10,4	-20	-27,4
• Industria eta energia	128	21,9	200	28,4	-72	-36,0
• Zerbitzuak	403	69,0	432	61,3	-29	-6,7

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2020ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, lizentzien kopuruak beheranzko bilakaera izan du hiru sektoreetan. Termino erlatiboetan, beherakada nabarmena izan da industriaren eta energiaren sektorean (-% 36,0) eta lehen sektorean (-% 27,4), eta askoz apalagoa hirugarren sektorean edo zerbitzuetan (-% 6,7).

5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

2020ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, gora egin du obra handiko lizentziei dagokien etxebizitza-bolumenak. Urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da, birgaitzeko aurreikusi den etxebizitza-kopuruaren igoera dela eta; bestalde, eraikin berriko etxebizitzek behera egin dute.

2020ko laugarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko 629 lizentziek 1.255 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak dakartzate berekin (aurreko hiruhilekoan baino 335 gehiago). Etxebizitza horietatik, 886 eraikuntza berriko jarduketekin daude lotuta (lizentzia guztien % 70,6); gainerako 369 etxebizitzak birgaitzeko prozesuekin daude lotuta².

Zehaztu behar da eragindako etxebizitza berrien bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiruhilekoan, sustapen-kopuruaren arabera. Hori gogoan hartuta, gorakada handia hauteman da 2020ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean, EAEn aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruan (% 43,8). 2019ko laugarren hiruhilekoaren eta 2020ko hiruhileko beraren arteko urtetik urterako kopuruari begiratuta, galera nabarmena izan da eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenean, % 4,8koa, hain zuzen (45 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kasuan, aipatutako epeko kopuruak aztertuta, balio positiboak ondorioztatu dira: etxebizitzaren kopuruak gora egin du, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 65 unitate gehiago baitira (% 21,4), eta duela hamabi hilabete baino 101 unitate gehiago (% 37,7).

Aurreko hiruhilekoan jasotako datuekin alderatuta, ukitutako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora Bizkaian, eraikin berrikoak nahiz birgaitzekoak. Gipuzkoan, berriz, gora egin du eraikin berriko etxebizitzaren kopuruak, eta Arabak emaitza negatiboak izan ditu bi esku-hartze motetan.

2020ko laugarren hiruhilekoan, **Araban** 211 etxebizitza daude aurreikusitako jarduketei lotuta; horietatik % 64,0 eraikuntza berrikoak dira (135 etxebizitza). Lurralde horretan, jarduketei lotutako etxebizitza berrien kopuruak behera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 21,1), eta antzeko terminoetan jaitsi da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 23,7).

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Eragindako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira aintzat soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da egindako zatiketa edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza-kopurua).



Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez (76 etxebizitza), bolumenak okerrera egin du 2020ko hirugarren hiruhilekotik (-% 15,6), baita, gutxi bada ere, urtetik urterako terminoetan ere (-% 2,6).

Bizkaian, 567 etxebizitzarekin lotutako jarduketak gauzatu dira 2020ko laugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 378 etxebizitza egitea aurreikusten da, eta ikuspegia positiboa da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 134,8ko aldakuntza, hau da, 217 etxebizitza gehiago). Urtetik urterako terminoetan, berriz, % 36,4ko beherakada izan da (216 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko jardueri dagokienez, gorakada nabarmena gertatu da: 90 etxebizitza gehiago (% 90,0) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta duela urtebeteko hiruhileko berean baino 63 etxebizitza gehiago (% 50).

Gipuzkoan, azkenik, 477 etxebizitzaren inguruko jarduketak gauzatu dira, eta etxebizitza horietatik 373 eraikuntza berrikoak izan dira. 2020ko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera, aurreikusitako etxebizitza-kopuruan gorakada izan da eraikuntza berriko jarduketetan (% 31,3), eta beherakada txiki bat birgaitzeko jarduketetan (-% 9,6). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, gorakada handia izan da etxebizitza berrien kopuruan (% 133,1), eta apur bat handiagoa birgaitzeko diren etxebizitzetan (% 62,5).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2020ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	1.255	100,0	335	36,4	56	4,7
	Eraikuntza berria	886	70,6	270	43,8	-45	-4,8
	Birgaitzea	369	29,4	65	21,4	101	37,7
Araba	Guztira	211	100,0	-50	-19,2	-44	-17,3
	Eraikuntza berria	135	64,0	-36	-21,1	-42	-23,7
	Birgaitzea	76	36,0	-14	-15,6	-2	-2,6
Bizkaia	Guztira	567	100,0	307	118,1	-153	-21,3
	Eraikuntza berria	378	66,7	217	134,8	-216	-36,4
	Birgaitzea	189	33,3	90	90,9	63	50,0
Gipuzkoa	Guztira	477	100,0	78	19,5	253	112,9
	Eraikuntza berria	373	78,2	89	31,3	213	133,1
	Birgaitzea	104	21,8	-11	-9,6	40	62,5



6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

Urtetik urterako kopuru metatuak aztertuta, EAEn nabarmen egin du behera eraikuntza berriko jarduketetan aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak; bestalde, zifrak bere horretan mantendu dira birgaitze-prozesuetan aurreikusitako etxebizitzaren kasuan.

Aurreikusitako etxebizitzaren hiruhilekoko kopuruak izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Horrela jardunez gero, 2020ko laugarren hiruhilekora arte bizitegi-erabileran metatutako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 4.197 etxebizitzari eragiten diete guztira (3.001 eraikuntza berrikoak eta 1.196 birgaitu egingo direnak). Hala, % 28,5eko beherakada gertatu da (1.673 etxebizitza gutxiago) 2019ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Jaitsiera horrek eraikuntza berriko jarduketetan izan du batik bat eragina (-% 35,9). Bestalde, birgaitzeekin lotutakoek gora egin dute zertxobait (% 0,9).



6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2020ko 1. hiruhilekotik 2020ko 4. hiruhilekora		Metatua 2019ko 1. hiruhilekotik 2019ko 4. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	4.197	100,0	5.870	100,0	-1.673	-28,5
	Eraikuntza berria	3.001	71,5	4.685	79,8	-1.684	-35,9
	Birgaitzea	1.196	28,5	1.185	20,2	11	0,9
Araba	Guztira	1.026	100,0	1.005	100,0	21	2,1
	Eraikuntza berria	772	75,2	733	72,9	39	5,3
	Birgaitzea	254	24,8	272	27,1	-18	-6,6
Bizkaia	Guztira	1.802	100,0	2.713	100,0	-911	-33,6
	Eraikuntza berria	1.280	71,0	2.171	80,0	-891	-41,0
	Birgaitzea	522	29,0	542	20,0	-20	-3,7
Gipuzkoa	Guztira	1.369	100,0	2.152	100,0	-783	-36,4
	Eraikuntza berria	949	69,3	1.781	82,8	-832	-46,7
	Birgaitzea	420	30,7	371	17,2	49	13,2

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2020ko 4. hiruhilekoa

Lurraldeen artean desberdintasunak daude etxebizitzaren arloan aurreikusitako jarduketetan. Urteko metatua izandako aldakuntzari erreparatuta, Arabak hobekuntza txiki bat izan du. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, kopuruak nahiko negatiboak dira, termino erlatiboetan, etxebizitza berriei dagokienez.



Etxebizitza berrien eraikuntzan, jarduerak gorakada txiki bat izan du Araban (% 5,3, hau da, 39 etxebizitza gehiago), baina Bizkaian % 41,0 egin du behera (891 etxebizitza gutxiago); hala ere, Gipuzkoak izan ditu datu txarrenak (-% 46,7, hau da, 832 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du Gipuzkoan (% 13,2), eta behera Bizkaian (-% 3,7) eta Araban (-% 6,6).



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, eta udalak etxebizitza babestuak sustatze aldera eskuratutako lurzoruari buruzkoa. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (eraikuntza berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra handiko lizentzia: Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, eraikuntza berriko edozein eraikuntza-mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan ala ez. Baimenaren helburua lizentzia-eskaera hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin bat datorrela egiaztatzea da.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

- a. **Eraikuntza berriko obra:** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraipen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onesitako proiektu tekniko bat egin behar da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso behar da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruaz azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke.

Ohikoenak honako hauek dira:

- Eraikinak handitzea, horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz.
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispin-obra: Eraikin bat guztiz edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2020ko 4. hiruhilekoa

Emaiza nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	15
TAULEN AURKIBIDEA	17
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	17

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	11
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	3
2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2020	6
4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	8
5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoa	12
7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2020ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Webgunea: www.euskadi.eus/lurralde-estatistikak
www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak
<https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse110x/eu/estadísticas-vivienda@euskadi.eus>

E-maila: estadísticas-vivienda@euskadi.eus